

# EUSKADIKO INGURUMEN KOIUNTURA TXOSTENA 2025 AURKEZTEA

*Posted on 26/03/2026 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [Informe de Coyuntura Ambiental](#), [Informes de análisis y contextualización](#), [Retos ambientales](#)

Josu Bilbao Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordeak atzo aurkeztu zuen Euskadiko Ingurumen Koiuntura 2025 txostena. Dokumentuak ingurumen-erronka nagusiak etorkizun ekonomikoaren erdigunean kokatzen ditu eta mezu argi bat bidaltzen du: ingurumen-arriskuak ez dira jada soilik arazo ekologiko bat, produktibitatea eta lehiakortasuna zuzenean baldintzatzen dituzten faktoreak baizik.

Txostenak aurrerapausoak berresten ditu airearen kalitatearen eta deskarbonizazioaren arloan, baina hondakinen murrizketan eta eredu zirkularragoetarako trantsizioan ahaleginak bizkortu beharra azpimarratzen du, hainbat azterketa berrirekin bat etorritz.

Aurrerapen horien harago, txostenak ingurumen-hondatzeari lotutako arrisku sistematikoetan jartzen du arreta. Ur-estresa, kutsadura eta biodibertsitate-galera bezalako faktoreak jarduera produktiborako gero eta muga handiagoak bihurtzen ari dira, eta klima-aldaketa arrisku finantzario gisa ere gero eta gehiago kontuan hartzen da. Testuinguru horretan, txostenak nabarmentzen du —helburu anbiziotsuenak bete arren ere— egokitze-estrategiak indartzea ezinbestekoa izango dela.

NAIDERek laguntza teknikoa eman dio lhoberi txostena egiteko orduan, emaitzen analisian eta testuinguratzean lagunduz.





